

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Iritzia](#)

2003-11-25

bira

Intimitatea

harkaitz cano

Intimitatea hil baino gehiago, suizidatu egin dugu. Patrikako telefonoak hartuta kalean oihuka ari diren zokormazoak entzun besterik ez dago. Ez daukat zertan jakin zure bikotearekin dituzun ika-mika eta diskusioen berri. Alferrik. Kutsatzen nau, gaixotzen nau. Tabakoaren nikotinak baino gehiago zikintzen dizkit birrikak ezezagunek beren miseriekin harrika egiteak. Ez dut nahi oparitzen didazuen zuen intimitate hori. Ez da nirea. Ez dut zuen sukaldeetan edo zuen oheetan nagoenik sentitu nahi. Lehen bestela zen: écouteur izateak belarri zorrotza eskatzen zuen, ahalegin bat gure aldetik. Guk neurtzen genuen noiz sartu nahi genuen muturra interesatzen ziztaigun jendearen elkarriketetan.

Pornografikoa zait, halaber, besteen mezuak hartu eta e-postaz jende guztiari bidaltzeko ohitura hori. Ezin eraman dezaket niretzat ez diren musu, amets eta konplizitate partikularrekin jendeak egiten duen hauspotze zibernetiko hori. Dei nazazue tradizional. Baina badaude gauza batzuk ðkatalana hitz egitea eta ð oraindik ere intimitatean egin beharrekoak.



Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 Bilboko 'herriko taberna'-tik presoan argazkiak kendu ditu Ertzaintzak
- 2 Aurkene Iturrioz izango da Euskadi Irratiko albistegiako zuzendaria
- 3 Xan Beiry eta Joseba Agirrebarrena ere aske utzi dituzte
- 4 EAJk "errespetatu" egiten du Europaren erabakia, eta Batasunari eskatu dio 'ez' esateko ETARI
- 5 Adintxikiko bat abxilotu dute Erreterian, ustez emakume bati sexu erasoa egiten saiatzeagatik



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SALA
 Hizuntza Politikako Sailburuordetza
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Viceconsejería de Política Lingüística



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa